



CPAP ESKOLA

Zer da CPAP ESKOLA?

CPAP Eskola taldeko aurrez aurreko formazio saio bat da, pazienteek loaren apnearen eta CPAC tratamenduaren inguruko kontzeptuak ikas ditzaten (SAHS). Arnasa-terapien enpresako langileek zuzendu ohi dituzte CPAC tratamenduaren saio hauek

Gure esperientziak egiaztatzen du ongi informatutako pazienteak laster egokitzen direla, CPACera, egoki jarraitzen duela eta berehala onurak lortzen dituela.

Zertan datza?

Saio honek 2 orduko iraupena du, egunez eskaintzen dira (goizez edo arratsaldez) eta bi fasez osatua dago:

- **Formazio fasea:** bertan pazienteari honako informazio hau eskaintzen zaio:
 - **SAHS:** ohiko sintomak, arriskuak, proba diagnostikoak eta tratamendu aukerak.
 - **CPAP:** oinarriko funtzionamendua, helburu terapeutikoa, maskaraxoa nola jarri, nola garbitu eta nola egin mantentzea, ohiko kalte-ondorioak eta haien konponbideak.
 - Tratamenduaren jarraipen zirkuitua
- **Fase Praktikoa:** pazienteak gure loaren unitateko gela batean, maskara, gailua probatzen ditu eta airearen presiora ohitzen saiatzen da. Aldi hau amaitzean pazienteak bere inpresioak adierazi ahal izango ditu eta sortu zaizkion zalantzak argitu. Aldi hau amaitzean pazienteak bere inpresioak adierazi ahal izango ditu eta sortu zaizkion zalantzak argitu.

Saioa amaitzean, pazienteari CPAP gailu automatiko telemonitorizatua emango zaio, bere etxean erabili ahal izateko programatua eta tratamenduaren lehen hiru hilabeteetan urrutiko kontrolaz jarraitzen dena. Urrutiko kontrolak CPAPren titulazio froga egitea ahalbidertzen digu, gainera, erabiltzen hasi eta lehendabiziko egunetan.

Non egiten da?

CPAC Eskolan loaren Unitatean egiten da, Santiagoko Ospitalean dagoen B pabiloiko 2. solairuan. Lo egiten duzun pertsonarekin etortzea aholkatzen dizuegu. Komenigarria da berak ulertzea CPAC tratamenduak zer garrantzi duen, animatzea eta laguntzea beraren erabilpen eta jarraipen egokian. Saia zaitetz zure hitzordura ordu-orduan etortzen eta itxaron, itxarongelan (12. Zik.) gure pertsonalak artatu arte.

Saioko ziurtagiria behar izanez gero, eska ezazu kontsultarako hitzorduen mostradorean, B pabiloiko behe solairuan (Paz kaleko sarrera ondoan)

CPAP Eskolaren hitzordurako informazio gehiago behar izanez gero edo-eta hitzordua aldatu beharra izanez gero, hitzorduen harrerarekin harremanetan jar zaitetzke honako telefono honetan (**945 007 753** / goizeko 8etatik iluntzeko 20etara).